

EAJ-PNVK BROTXAREN BRIGADEN ENPLEGU-PROGRAMA BEREHALA BERRESKURATZEKO ESKATU DIO MAROTORI

Gutxien gustatzen zaizkion kolektiboekin anker jokatzeko du PPK: gazteak eta auzoa sortu nahi duten pertsonak”, adierazi du Nerea Melgosak

Vitoria-Gasteizko Udaleko EAJ-PNV Udal Taldeak gobernu taldeari eskatu dio “Brotxaren Brigadak” enplegu-programa berehala berreskuratzeko. 2009az geroztik, programa horrek lana eman die 16 eta 20 urte bitarteko gazteei, muralismo publikoaren ekimenaren bitartez. Aste honetan PPK “Itinerario Muralístico Vitoria-Gasteiz” delakoaren arduradunei jakinarazi die uda honetan ez dutela lanik gabeko dozena erdi gazte kontratatze behar duten diru-laguntza jasoko. Javier Marotoren kabineteak urte honetan zehar Kultura eta Gazteria alorrean egindako beste murrizketa bat da hau, Gauekoak programa edo Goian proiektua dira murrizketa horien adibide, besteak beste.

“6.000 euroko diru-laguntza da, Itinerario Muralístico izenekoa hasi zenetik 60 gazte baino gehiagori lana eman dien programa baterako. Udalak badu diru-laguntza hau mantentzeko diru nahikoa eta soberan. PPri falta zaiona gizartea eta hiria birgaitzeko ekimena mantentzeko borondatea da. Gutxien gustatzen zaizkion kolektiboekin anker jokatzeko du Marotok: gazteak eta auzoa sortu nahi duten pertsonak, bizilagunen parte-hartzearen eta lankidetzaren alde egiten dutenak”, adierazi du Nerea Melgosa zinegotzi jeltzaleak.

Brotxaren Brigadei Muralismo Publikoaren programaren edizio berria hasi baino bi hilabete lehenago kendu diete diru-laguntza eta beraz, erakundeak ezin du beste finantzaketa-iturririk bilatu eta ezingo du brigadarik izan uda honetarako aurreikusitako muralean. “Horrek gogor egin die lan egin nahi duten gazteei eta Gasteizko muralismoari. Itxaropen bakararra geratzen zaigu: datorren urtean beste gobernu talde batek egoera aldatzea”, bukatu du Melgosak.

Gasteizen, 2015eko maiatzaren 13an